# Denbora-

Erantzunak: **3.-** Durango-Bizkaia, Berriozar-Nafarroa, Andoain-Gipuzkoa eta Amurrio-Araba.
**4.-** 3,35 euro, 3,15 euro eta 4,6 euro gastatu ditu.

## 1 Zazpi aldeak

Nahiaren aitak futbolean jokatzen du, eta asteburuetan izaten ditu partidak.
Aitari ateratako argazkiari zazpi gauza aldatu dizkiogu. Aurkitu!





## 2 Kopiatu laukiz lauki

Maitemindu denetik bihotzak besterik ez du marrazten Izaskunek. Marraztuko al duzu bihotz berdina lauki koadrodunean?



# -pasak

## 3 Sagu Jakintsua

Bidaiatzea izugarri gustatzen zaio gure sagutxoari. Azken hilabetean lau herri hauek bisitatu ditu.

Zein probintziatan dago herri bakoitza?




## 4 Erosketak

Fruta erostera bidali du amak Lara. Hona hemen egindako erosketaren zerrenda.

Fruten balioa kontuan hartuta, atera kalkuluak!







## jolasa

### Etxeko loteria

Etorkizuna iragartzeko dohain bereziak al dituzu? Hala bada, aise asmatuko duzu zein izango diren loteria irabazleko zenbakiak. Egin proba!

**1.** Jokalari bakoitzari orri bana emango zaio. Hamar zenbaki idatzi beharko ditu jokalariak bere paperean. 1etik 40ra bitarteko hamar zenbaki aukeratu beharko ditu. Horixe izango da bere jokorako txartela.




**2.** Hartu berrogei paper zatitxo, eta idatzi bakoitzean zenbaki bat: 1etik 40ra. Tolestu ongi paper zati guztiak, eta sartu poltsa batean.



**3.** Poltsatik paperak aterako ditu jokalari batek, banaka-banaka. Paperean dagoen zenbakia irakurriko du ozen. Paperak ateratzen ari den jokalariak ere izan dezake bere jokorako txartela.





**4.** Jokalariren batek esandako zenbakia jokoko txartelean badu, X bat ipiniko du gainean.

**5.** Txartelean dituen hamar zenbakiak urratzen dituen lehen jokalaria izango da garaile. Irabazle bat baino gehiago izan daiteke partida bakoitzean.

